

GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOARI
BURUZKO TXOSTENA



GUGGENHEIM BILBAO

EDUKIA

1. TXOSTENAREN AURREKARIAK ETA HELBURUAK	4
2. GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOA.....	6
2.1. Bisitariekiko erantzukizuna	13
2.2. Gizarteratzeari egindako ekarpena	29
2.3. Artearekiko konpromisoa.....	33
2.4. Bilbo, Bizkaia eta Euskadirekiko konpromisoa	39
2.5. Ingurumenarekiko erantzukizuna.....	43
2.6. Giza lantaldearekiko konpromisoa	47



1.

TXOSTENAREN AURREKARIAK ETA HELBURUAK

1997ko urrian inauguratu zenetik bi hamarkada baino gehiago igaro diren honetan, Guggenheim Bilbao Museoa arte- eta kultura-mailan asmo handinahienak gainditu dituen errealitatea da, eta ekarpen bikaina egin dio Bilbo hiriaren eta haren inguruaren berriztapen urbanistiko, ekonomiko eta sozialari.

Bere jardunaren eta jarreraren funtsezko alderdia izanik, Museoarekin harremana duten interes taldeekiko bere konpromisoa erakutsi du egunez egun Museoak (giza lantaldea, bisitariak, gizartea, arte-komunitatea, ingurumena, ugazabak, etab.), eta haien beharrak asetzeko ahalegin handia egin du. Konpromiso hori agerian geratzen da Museoak, Gizarte Erantzukizun Korporatiboari (GEK) lotuta, hasieratik garatu dituen ekimen guztietan; inpaktu handia izan dute ekimen horiek gizartean, ekonomian eta ingurumenean.

Museoaren XX. Urteurrenarekin bat eginez, eta 2018–2020 aldirako bere Plan Estrategikoaren barruan, gizarte erantzukizun korporatiboaren arloan garatzen dituen jardunak, proiektuak eta programak egituratu eta deskribatuko dituen txostena egitea erabaki du Museoak, ondorengo helburuekin:

- Erakundearen gardentasun-politikaren barruan, Guggenheim Bilbao Museoaren gizarte erantzukizun korporatiboko estrategia osatzen duten ekimenak eta jarduketak dokumentatzea.
- Museoarekin harremana duten interes-talde nagusiekiko dituen konpromisoak egituratzea eta konpromiso horiei balioa ematea.
- Museoaren gizarte erantzukizun korporatiboaren arloan etorkizuneko estrategia indartzeko abiapuntutzat balioko duen agiri bat edukitzea.

Jarraian aurkezten den txostenak, sarrerako kapituluaren ondoren, GEKaren arloan Museoak garatutako ekimen nagusiak jasotzen ditu, sei ataletan egituratuta:

- Bisitarietikiko erantzukizuna
- Gizarteratzeari egindako ekarpena
- Artearekiko konpromisoa
- Bilbo, Bizkaia eta Euskadirekiko konpromisoa
- Ingurumenarekiko erantzukizuna
- Giza lantaldearekiko konpromisoa



2.

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOA

Guggenheim Bilbao Museoaren Zereginak eta Balioek bere jarduna gizarte erantzukizun korporatiboaren ikuspegitik burutzeko dituen konpromisoa eta bokazioa erakusten dute. Horregatik, bere interes-taldeen beharrak asetzeraz bideratutako askotariko ekimenak eta egitasmoak garatu ditu Museoak hasieratik, eta ezarritako betekizun juridikoak gainditzera heldu da. Gizarte erantzukizun korporatiboa, beraz, Museoaren jardunaren funtsezko alderdia da, eta sustatzen dituen balioekiko etengabeko konpromisoan islatzen du.

Guggenheim Bilbao Museoaren Zereginak agerian uzten du erakundeak artearekiko, gizartearekiko eta lurraldearekiko dituen konpromisoa eta erantzukizuna; honela definitzen da Zeregin hori: “Arte modernoa eta garaikidea bildu, zaindu eta ikertzea, eta Artearen Historiaren testuinguruan ikuspegi desberdinetatik eta publiko zabal eta anitzarentzat ikusgai jartzea, Guggenheim Museoen Sarearen funtsezko osagai eta Euskal Herriaren bizitasunaren sinbolo den aldetik arkitekturaren obra enblematikoaren esparruan artea eta adierazten dituen baloreak ezagutarazten eta arteaz gozatzen lagunduz”.

Horrela, Zereginak argi uzten du kultur ondare garrantzitsua eraikitzeke, zaintzeko eta jendearengana hurbiltzeko, ikertzeko eta hortik esanahiak atera eta, ikuspegi didaktiko eta anitz batetik, gizarteari helarazteko erakundeak duen erantzukizuna. Museoak kultura gizartera hurbiltzeko eta jendearen hezkuntza artistikoan laguntzeko bokazioa nabarmentzen da. Era horretan, kulturarekin eta tolerantziarekin lotutako balioak sustatu nahi dira, eta hurbileneko testuinguru sozioekonomikoaren dinamizatzaile gisa jardun nahi da.

Guggenheim Museoaren nortasuna osatzen duten Balioek ere interes-taldeen konpromisoa erakusten dute. Artearekiko errespetua eta arte-komunitatearekin integratzea, orientazio didaktikoa, gizartearekiko konpromisoa, pertsonenganako konfiantza eta, pertsonen aniztasuna kontuan hartuta, aukera-berdintasuna sustatzea dira, besteak beste, Museoaren funtsezko eta egunerokotasunean bizirik dauden balioak, sozialki arduratsua den erakundea dela erakusten dutenak.

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN BALIOAK

1. ARTEAREKIKO SENTSIBILITATEA ETA ERRESPETUA:

“Trabajamos desde la sensibilidad artística, y el respeto hacia la obra de arte preside nuestras acciones”

2. KOMUNITATE ARTISTIKOAREKIN INTEGRATZEA:

“Euskadiko jarduera artistiko eta kulturala aberasten laguntzen dugu, bertako Erakundearen kultura-estrategien testuinguruan”

3. KALITATEAREKIKO KONPROMISOA:

“Museoaren arrakasta bere kudeaketaren bikaintasunarekin lotuta dago, eta horrek kalitatez lan egitera behartzen gaitu”

4. BEZEROARENGANAKO ORIENTAZIOA:

“Asebetetako bezeroak dira etorkizuneko gure berme bakarra. Haien aniztasuna kontuan izatea eta gure lana haiek asebetetzera bideratzea da gure lehentasun nagusia”

5. ORIENTAZIO DIDAKTIKOA:

“Gure konpromiso nagusia da publikoari kulturara eta, batez ere, arte modernora eta garaikidera hurbiltzen laguntzea”

6. ORIENTAZIO EKONOMIKOA:

“Baliabideak ahalik eta modurik egokienean kudeatu ahal izateko lan egiten dugu, Museoaren autofinantzaketa-maila ahalik eta handiena izan dadin”

7. GUGGENHEIM MUSEOEN INTEGRAZIOA ETA LANKIDETZA:

“Erakundearen integrazioa bultzatzen eta indartzen dugu Solomon R. Guggenheim Foundation-en helburu, kultura eta identitatean”

8. GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA:

“Euskadiren bizitasunaren ikur izaten eta, artearen bitartez, jokabide etikoak sustatzen saiatzen gara”

9. PERTSONENGANAKO KONFIANTZA:

“Pertsonen zintotasunean, konfiantzan, osotasunean eta erantzukizunean oinarritzen den partaidetzazko lana bultzatzen dugu, gizabanakoaren askatasuna eta harekiko errespetua bultzatuz”

10. FAMILIAREKIKO ARDURATSUA ETA, BEREN ANIZTASUNEAN, PERTSONEN AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEN DUEN ERAKUNDEA:

“Guggenheim Bilbao Museoa jokabide etiko eta soziala izaten ahalegintzen da, pertsonak beren aniztasunean izan behar duten aukera-berdintasuna errespetatuz, lanaren eta bizitza pertsonalaren arteko bateragarritasuna bultzatuz, eta beti genero-ikuspegia kontuan hartuta”

Gainera, berariaz azaldu izan du Museoak bere lana **gizarte erantzukizun korporatiboko nazioarteko testuinguruaren arabera gauzatzeko duen nahia, bere jarduera gizartearentzako onurak bilatzera bideratuz.**

ildo horretan, arlo sozialean, lan-arloan, ingurumenaren eta giza-eskubideen arloan inpaktu positiboa sortzeko lan egiteko duen asmoa eta konpromisoa adierazten du Museoak, ezarritako betekizun juridikoez eta bere jardueraren berezko izaeraz harago.

GEK-AREN NAZIOARTEKO TESTUINGURUA

GIZARTE ERANTZUKIZUN KORPORATIBOA, EUROPAR BATASUNAREN ARABERA:

“Interes-taldeekiko nazio- zein nazioarte-mailako betebeharrak eta konpromiso legal eta etikoak, erakundeek beren existentziagatik eta jardunagatik gizartean, lan-arloan, ingurumenean eta giza-eskubideen esparruan sortzen dituzten inpaktuen ondoriozkoak”

GARAPEN JASANGARRIA, THE GLOBAL REPORTING INITIATIVE (GRI) ERAKUNDEAREN ARABERA:

“Gaur egungo beharrak asetzeari, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe”

Premisa horietan oinarrituta, **Gizarte Erantzukizun Korporatiboa** bere jardueraren eta jarduteko moduaren funtsezko testuinguru bihurtu da **Guggenheim Bilbao Museoarentzat**, eta sustatzen dituen balioekiko duen eguneroko eta etengabeko konpromisoan eta bere interes-taldeekiko duen harremanean islatzen da hori:

pertsonekiko errespetua eta konpromisoa; bisitariarikiko eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonekiko erantzukizuna; Bilbo, Bizkaia eta Euskadiko gizartearekiko lotura; artearekiko eta arte-komunitatearekiko konpromisoa; eta ingurumenarekiko errespetua, besteak beste.

BISITARIAK



Museoak bikaintasunaren aldeko apustua egiten du **bisitariarekiko zuzeneko arretari** dagokionez, bai eta bere jarduera- eta zerbitzu-eskaintza Museoarekin harremana duten **kolektiboen beharretara** egokitzearen eta pertsonalizatzearen alde ere. Museoaren lehentasunezko helburua da behar bereziak dituzten kolektiboen **irigarritasuna** eta arteaz gozatzeko modua erraztea.


Horrez gain, bisitariarekin epe luzeko konfiantzazko harremanak sortzea bilatzen du Museoak, eta hezkuntza-erakunde izateko bokazio argia du. Zentzu horretan, **gizartearekiko erantzukizuna** hartzen du bere gain, eta artearen bitartez jokabide etikoak sustatzea bilatzen du.

GIZARTERATZEKO ZAILTASUNA DUTEN ETA GIZARTE-BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK



Gizartearen baitan kultura zabaltzeko tresna izateko duen bokazioari eta **lurraldearen garapenean eta kohesio sozialean laguntzeko** duen nahiari eta konpromisoari jarraiki, gizarteratzeko zailtasunak dituzten eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden berariazko kolektiboei zuzendutako hainbat programa eskaintzen du Museoak.

KOMUNITATEA ARTISTIKOA



Museoak ez du izan nahi ingurunean garatzen den arte-jarduera osoaren muina; aitzitik, **dinamizazioko eta topaketako elementu bat gehiago** izan nahi du, beste kultura-erakunde batzuk integratuko dituen, baita artista, galeria-jabe, proiektu eta ekimen ezagunak ere, hurbileneko arte-komunitatearen aniztasuna eta jarduera ahalik eta gehien bultzatzeko ahaleginak bateratuz.

BILBO, BIZKAIA ETA EUSKADI



Museoa **Bilbo hiriararen eraldaketarako motorretako bat eta hiriararen biziberritzearen ardatz nagusia** izan da: bisitariak erakarri ditu, eskari turistiko handiagoa bultzatu du eta lurraldean aberastasuna sortzen eta enplegua mantentzen lagundu du.

Halaber, nazioarteko oihartzun handia lortu duen **elementu mediatiko** bilakatu da Museoa, eta hala, Euskadiri berrikuntzaren abangoardiako sareko kide izateko aukera eman dio.

Hori guztia, **gardentasunean eta jokaera etikoan** oinarritutako kudeaketa- eta gobernu-eredu batekin erdietsi du.

INGURUMENA



Guggenheim Bilbao Museoak ingurumena zaintzeko erabateko konpromisoa du; horrela, **garapen jasangarriko printzipioetan oinarrituta garatzen du bere jarduna.**

Museoak hartu dituen neurriak bere jardunaren ingurumen-inpaktuak minimizatzea eta ekosistema zaintzera bideratuta daude; horrela, naturaren kontserbazioa bultzatzen du eta eko-eraginkortasunera bideratutako jarduna sustatzen du: ahalik eta inpakturik txikiena eraginda, baliabideen ahalik eta aprobetxamendurik handiena lortzea du helburu.

GIZA LANTALDEA



Aukera-berdintasunean oinarrituta garatzen da Pertsonen Kudeaketa Globala, pertsona horien izaera gorabehera, eta bere enpresa-estrategiaren barruan integratzen du kontziliazioa, ingurune atsegin eta bizigarri batean enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna eskaintzeko eta enplegatu-enpresa erantzunkidetasuna sustatzeko helburuz, lanerako modu malgu eta berritzaileen aldeko apustua eginez. **Pertsonen garapena eta laneko arriskuen prebentzioa** ere pertsonen kudeaketaren funtsezko ardatzak dira.

2.1

BISITARIEKIKO ERANTZUKIZUNA

Guggenheim Bilbao Museoa arte garaikidearen munduko nazioarteko erreferentzia bihurtu da, urtez urte indartzen den erakargarritasun turistikoarekin. Sortu zenetik, milioi bat bisitari inguru jaso du urtero, eta bisitariarenganako zuzeneko arretan bikaintasunaren aldeko apustua egiten du —horixe da Museoaren xede nagusia—, baita bere jarduera-eta zerbitzu-eskaintza Museoarekin harremana duten kolektiboen beharretara egokitzearen eta pertsonalizatzearen aldekoa ere (haurrak eta familiak, irakasle eta ikasleak, publikoa oro har, Lagunak, ezgaitasun edo behar bereziren bat duten pertsonak, elkarteak...).

Guggenheim Bilbao Museoak, gainera, gizartearekiko erantzukizuna hartzen du bere gain, Euskal Herriaren bizitasunaren ikur izan nahi du eta, artearen bitartez, jokabide etikoak sustatu nahi ditu. Zentzu horretan, publikoa kulturara eta, batez ere, arte moderno eta garaikidera hurbiltzen laguntzeko konpromisoa hartzen du. Orientazio didaktikoa eta hezkuntza dira Museoaren Zereginaren eta bere jarduerak gidatzen dituzten Balioen funtsezko alderdietako bat. Horrela, jakintza sortu, artea jende guztiarengana hurbildu eta artearen ikaskuntza eta interpretazioa eta haren adierazpen modernoa eta garaikidea bultzatzen duten hezkuntza-proiektuak sustatzen eta garatzen ditu.

A.

Konfiantzazko eta epe luzeko harremanak

EKIMEN NAGUSIAK

- Museoaren Lagunen Programa
- Kide Korporatiboen Programa
- Community

Museoak tokian tokiko komunitateetara hurbiltzea da gaur egungo joerarik esanguratsuenetakoa bat, museoak topagune eta jakintza sortzeko leku gisa duen egitekoa indartzea inplikatzeko baitu, bere hurbileneko ingurunearekiko elkarriketarako espazio bat bultzatuz. Gizartearentzako zailak diren uneetan, errealitate beraren inguruko zalantza eta ikuspegi ugari sortzen den garaietan, museoak oro har publikoaren konfiantza-maila handiak mantentzeko gai izan dira, sozialki oso bestelakoak diren testuinguruetan ulergarritasuna errazten duten ondarea eta jakintza zaintzen duten erakunde irekiak diren aldetik.

Zentzu horretan, bisitari-kolektiboekin eta interesdun pertsonekin epe luzerako konfiantzazko harremanak sortzea funtsezko helburua da Museoaren jardunean, eta faktore horrek bultzatu du Museoa publiko zabal eta anitza biltzen duen artearen eta kulturaren inguruko komunitate baten garapena bultzatzera. Inauguratu zenetik, hain zuzen ere, Kide Korporatiboen eta Museoaren Lagunen sare sendoa du Museoak; sare horiek Museoak bere hurbileneko ingurunearekiko duen “sustraitzea”, gizartearekiko harreman estua eta erakundeak bere ibilbidean zehar izan duen indarraren erakusle dira:

Museoaren Lagunak: Kide Indibidualen Programaren helburua da Museoari babes sozial handiagoa ematea, ahalik eta kide gehien lortuz eta haien leialtasuna lortuz. Programa horren bitartez, antolatzen diren jarduera guztien berri ematen zaie Museoaren Lagunei, bai jende mota guztiari zuzendutako jardueren, bai kolektibo horrentzako bakarrik diseinatutako jardueren berri.

Kide Indibidualak erreferentziatzeko kolektiboa izan dira hasieratik Musearentzako. Kulturaren munduarekin lotutako nazioarteko proiektu baten partaide izateko nahiak ahalegin bat eskatzen du, baina horren truke programa anitz eta kalitatezko bat, jarduera osagarri anitz, bisiten erosotasuna eta irisgarritasuna bermatzen duten zerbitzu eta goza ditzaketan gertaeren berri jasotzeko komunikazio-kanal on bat eskuratzen dute Lagunek.

Kide horien leialtasun-maila handiari eta tokiko herritarren arteko arrakasta-maila handiari esker, 18.000 bat laguneko partaidetza lortu da, eta erreferente bihurtu da museoaren eta lagunaren elkarten leialtasun programaren artean.



Kide Korporatiboak: Programaren helburua da enpresetatik eta babes-proiektuetatik datozen ekarpen-maila ahalik eta handiena lortzea, eta Museoko partaidetza korporatiboa antolatzen du. Enpresa mota guztiei irekita dago, edozein dela ere enpresen tamaina, eremu geografikoa eta beren jarduera-sektorea, eta erakundearen balioekin bat datozen ehun kide baino gehiago ditu gaur egun. Konpromiso horri esker, enpresek eta erakundeek kulturaren munduarekin dituzten harremanak estutzen dituzte, eta beren komunikazio-estrategietarako eta harreman publikoetarako tresna oso baliotsua lortzen dute. Museoak, berriz, bere jarduerak garatzea ahalbidetzen dion lankidetzaren egonkor bat eskuratzen du.

Enpresen babes hori bereziki garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu partaidetza pribatuak museoaren kudeaketan duen izaera berritzailea. Programaren lankidetzaren kategoria ezberdinak daude, behar korporatibo ezberdinetara egokitzen direnak eta onura orokor batzuk eskaintzen dituztenak (Museoak antolatutako gertaeretan parte hartzea; erakunde kolaboratzaile gisa aurkeztea publikoki; Museoaren espazioetan ekitaldi korporatiboak egiteko aukera; Museora sartzeko abantailak, gonbidapenen eta doaneko bisita gidatuen bitartez; eta komunikazio korporatiboko materialetan Museoaren irudia erabiltzeko aukera, besteak beste).

Kolektibo biek osatzen dute Museoaren XX. Urteurrenaren harira sortutako espazio berria, eta funtsezko eginkizuna dute espazio horretan: **Community** delakoaz ari gara, beren interesen arabera hainbat abantaila eta edukiren bitartez, publiko ezberdinekiko harreman dinamikoa ezartzea ahalbidetzen duen komunitate berria; komunitate horretan, gainera, hirugarren talde bat ere badago, Museoaren jardueraren inguruko informazioa eta pizgarriak jaso nahi dituzten munduko edozein tokitako pertsonaz osatuta dagoena (Jarraitzaileak). Mundura irekitako espazio berri hori sortuta, Museoaren helburua da publiko zabal batekiko harreman arina eta egonkorra ezartzea: baliozko edukiak doan eskaintzen dizkie (Museoaren arte- eta hezkuntza-egitarauari buruzko informazioa, erakusketen ikus-entzunezko edukiak eskuratzeko aukera, lehentasunezko sarbidea, promozio zehatzak, etab.) eta haien parte-hartzea bultzatzen du.

Komunitatearen kontzeptu berri horrek osagai teknologiko garrantzitsua du, eta teknologia digitala bisitariaren esperientzian sartu eta haren partaidetza biltzen duen espazio hibridoak eraikitze behararekin bat egiten du. Lldo horretan eta, arte- eta hezkuntza-egitarauaren dinamismoari esker, formatu ezberdinetan eduki kopuru handia sortzen denez, Guggenheim Bilbao Museoa eraldaketa digital handia egiten ari da, eta jakintza sortzean bakarrik zentratu egon ordez, jakintza hori partekatzeari garrantzi berezia ematen ari zaio.

Azken batean, Museoak bere bisitariari eskaintzen dizkien zerbitzuek bisitaren kalitatea ahalik eta handiena lortzen laguntzen dute, bisitari baliu erantsia emanez eta esperientzia berezia sortuz; ondorioz, gogobetetasun-maila handia lortzen da, etorkizuneko bisitak bultzatuko dituen. Bisitariak espero duten hori identifikatzea eta horri erantzutea eta eskakizunei aurre hartzea dira erabiltzaileen gogobetetasun-maila handia lortzeko aukerarik onenak.



B.

Kolektibo ezberdinei bideratutako hezkuntza-jarduerak

EKIMEN NAGUSIAK

- Ikasleentzako hezkuntza-jarduerak; nabarmentzekoa da *Artea ikasbide* programa
- Hezitzaileentzako zerbitzuak eta jarduerak
- Familientzako hezkuntza-jarduerak; nabarmentzekoak dira *Baby Art* eta *Books Alive!* ekimenak
- Herritar ororentzako eta Museoaren Lagunentzako hezkuntza-jarduerak; nabarmentzekoak dira *TopARTE* programa eta Didaktika espazioak
- Adineko pertsonentzako bisitak
- Unibertsitateentzako eta prestakuntza-zentroetarako bisitak eta bestelako jarduerak

Museoak argi dauka bere bokazioa hezkuntza-erakundea izatea dela. Horregatik, beharrezkoa da ekimen bakoitzerako teknikak, materialak eta giroak aztertzea, diziplina arteko hezkuntza-esperientzia informal eta ahalik eta interaktiboena lortzeko; izan ere, informazioa transmititzerakoan, zorrotzasun akademikotik urrun dago museo-hezkuntza.

Zentzu horretan, eta orientazio didaktikoa izanik erakundearen funtsezko alderdietako bat, hezkuntza- eta interpretazio-lanak kultura artistiko modernoa eta garaikidea publikoari hurbiltzera bideratuta daude, eduki artistikoen interpretazioaren bitartez eta hezkuntza-programak eta kultura-jarduerak sortu eta ezarrita, diziplina arteko ikuspegi batetik eta askotariko publikoei zuzenduta.



ARTEA IKASBIDE PROGRAMA

Nabarmentzekoa da *Artea ikasbide* programa; 1998tik dago abian, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan eta BBKren babesarekin garatzen da.

Programa horren baitan, Lehen Hezkuntzako eskola-curriculum indartzeko tresna gisa erabiltzen da artea. Programaz arduratzen diren artistek ikastetxeetako irakasleekin (eskuarki, arazo sozial, ekonomiko edo geografikoren bat dutenak) eta Museoeko hezitzaileekin lankidetzan estuan lan egiten dute, sorkuntza-prozesuko estrategiak eta askotariko teknika artistikoak aplikatuz, ikasleei errealitatea arakatzeko eta ulertzen lagunduko dieten baliabideak emateko. Arteari buruz hitz egiteak eta sorkuntza-prozesuan parte hartzeak curriculumeko gaiak irudimenez eta modu pertsonalean jorratzeko aukera ematen die ikasleei. Diziplina eta teknika artistikoak —hala nola, argazkigintza, pintura, eskultura, bideoa eta performancea— errealitatea deskubritzeko, esploratzeko eta ulertzen saiatzeko tresna bihurtzen dira, enfasi berezia jarriz adierazpen indibidualean, kolektiboan eta sormen-askatasunean. Proiektu hori Museoan dagoen aldi baterako erakusketa batek osatzen du.

- **Ikasleak:** Ibilbide malguak Museoeko erakusketa jakin batzuetan zehar, Haur Hezkuntzako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta; jolasak eta emozioak ere lantzen dira bertan. Irukindutako bisita parte-hartzaileak, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleei eta helduentzako heziketako taldeei zuzenduta. Autogestionatutako bisitak (ikasleen gidari gisa beren kabuz bisita egin nahi duten hezitzaileentzako doaneko programa berezia; gainera, material didaktikoa jaisteko aukera ematen zaie) eta Udako Campusa, Museo aitzindari izan den ekimena.
- **Hezitzaileak:** Museora doan sartzeko aukera, erakusketak ezagutzeko; Orientazio- eta prestakuntza-saioak, irakasleei ibilbideak eta jarduerak antolatzen laguntzeko; eta *online* bidezko baliabide didaktikoak (erakusketei eta bilduma iraunkorrari buruzko hezkuntza-gidak, elkarrizketaren eta partaidetzaren bitartez artera hurbiltzea planteatzen dutenak).



BABY ART

Estimulu- eta jolas-espazioa da, sektorean aitzindaria Espainian, etagurasoen eta 36 hilabete arteko haurtxoen arteko interakziora bideratuta dago; elkarrekin, artearekin zerikusia duten kontzeptuak esploratzen dituzte, hala nola koloreak, testurak, argia eta espazioa.

- **Familiak:** Sormen-esperientziak (3 eta 11 urte bitarteko haurrentzako esperientzia edo sormen-jarduerekin osatu eta indartutako erakusketetarako bisita parte-hartzaileak); guraso eta seme-alabentzako jardueren gida, aldi baterako erakusketen harira; *Armiarma* eta *Puppy* tailerrak, Museoeko Lagunen seme-alabentzat, Louise Bourgeois-en lanari eta Jeff Koons-en eskulturari buruzkoak; Udako tailerrak; Arkitekturari buruzko hastapen ikastaroa, 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat; Gabonetako jarduerak (enigma-jolasak); eta Museo deskubritzeko bisita birtuala, gaztetxoenei zuzenduta. Nabarmentzekoak dira, gainera, erreferente diren bi ekimen:




BOOKS ALIVE!

Haurrak liburu eta ipuinen bitartez artera hurbiltzea helburu duen jarduera ludikoa; kontaktarekin, irakurketarekin eta sormenarekin lotutako jarduerak egiten dira, ingelesez.

- **Publiko orokorra eta Lagunak:** Museoaren bilduma iraunkorrari, arkitekturari edo aldi baterako erakusketei buruz taldeei zuzendutako doaneko bisita gidatuak (erreferentea, beste museo batzuekiko); bisitaldi laburrak; esperientzia-bisitaldiak (bisita gidatu eksklusiboak; erakusketei buruzko eduki artistikoko azalpenak eta publiko orokorrarentzako irekita ez dauden espazioetarako bisita konbinatzen dira); arte modernoari eta garaikideari eta artistek eta arte munduko profesionalak garatutako teknika artistikoei buruzko tailerrak eta ikastaroak; hainbat alorrekin lotutako sormen-saioak (musika, moda eta gastronomia, besteak

beste); hitzaldiak, elkarrizketak eta mahai-inguruak; arte eszenikoekin lotutako jarduerak (kontzertuak, dantza ikuskizunak, antzerkia...); kanpo-zabalkunderako programak, batez ere elkarte eta fundazio soziokulturei zuzendutakoak; zinema- eta bideo-emanaldiak; eta hausnarketa partekatuko programak, aldi baterako erakusketen eta bilduma iraunkorraren alderdi garrantzitsuenei buruzko zuzeneko informazioa lortzera bideratuta daudenak, Arte Ardura eta Hezkuntza Sailak osatzen dituzten pertsonen eskutik.

Nabarmentzekoak dira, gainera:



DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan, erakusketa bakoitza osatzeko espazio didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak. Eremu eta jarduera horiek artearekin, artistekin edo haien sormen-prozesuekin lotutako alderdiei buruzkoak dira, eta erakusketako lanez gozatzen eta lan horiek ulertzen laguntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dituzte.

Zero Espazioa (bisitaria orientatzeko aretoa): espazio dinamiko eta interaktiboa da, bisitariaren eta erakundearen arteko topagune izateko helburuz sortutakoa, Museoan esperientzia berezia bizi izateko beharrezko gakoak eskaintzen dizkiona bisitariari.

- **Adineko pertsonentzako bisitak:** Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Departamentuarekin lankidetzan, Aldundiaren erregistro ofizialean inskribatutako erretiratuen elkarteei egokitutako doaneko bisita gidatuak eskaintzen ditu Museoak. Batez beste 40 bat talderen bisita jasotzen du Museoak urtero; irisgarritasun kontuak eta parte-hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta diseinatzen dira bisitaren ibilbidea, iraupena eta edukiak. Gainera, BBKren erretiratuen Klubei ere eskaintzen zaie Museo bisitatzeko aukera, monitore baten laguntzarekin.

- **Unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak:** Unibertsitateetara eta prestakuntza-zentroetara gehiago hurbiltzeko hainbat ekimen jarri du abian Museoak; honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Bisitak antolatzen dituzte, Unibertsitateei eta ikastetxeei zuzenduta.
- Lankidetzak EHUekin, Milango Bocconi Unibertsitatearekin, Deusto Business School-ekin eta New York University-rekin, masterrak emateko, Museoak sortutako jakintza artearen munduko etorkizuneko profesionalekin partekatze eta haien eskura jartzeko.
- Berriazko programa, EHUren Udako Ikastaroetan.

Gainera, bizkaia:talent elkarteak EHUekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin sustatzen duen Talentia programarekin kolaboratzen du Museoak; programa horren helburua da potentzial handiena duten unibertsitate-ikasleak lan-merkatura modu egokian sartzeko eta garapen profesional egoki baterako orientazioa ematea, eta ikasleek beren inguruko errealitate zientifiko, teknologiko eta enpresa-errealitatearekin lotura izan dezaten laguntzea.

Ikaskuntza-maila ahalik eta handiena eta esperientzia gogobetegarria bermatzeko, Museoak garrantzi berezia ematen dio hezkuntza-programazioa kolektibo ezberdinentzako pertsonalizatzeari eta egokitzeari, baita bitarteko egokiak eskaintzeari ere (adibidez, baliabide bereziak —bideo-gidak eta audio-gidak, adibidez—, idatzizko dokumentazioa, gupildun aulkiak eta lehentasunezko sarbidea ezgaitasuna duten pertsonentzako, behar bereziak dituzten kolektiboentzako eta adineko pertsonentzako, eta haurrentzako eta familientzako berriazko jarduerak eta zerbitzuak, hala nola menu bereziak, tailerrak, aulki eta motxila eramangarriak, etab.).



TopARTE

XX. Urteurrenaren barruan, TopARTE programaren bitartez, Euskal Herriko beste eragile eta erakunde kultural batzuei ireki zizkien bere ateak Museoak. Diziplina guztiei zuzendutako ekimena izan zen: musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia, gastronomia... Izandako arrakastaren eta parte-hartze handiaren ondorioz, jarraitutasuna izan du programa horrek, eta Museoak gizartearen motorra izateko duen ideia bultzatzen laguntzen du.

Zehazki, eta Guggenheim Bilbao Museoaren elementu bereizgarri modura, entzuteko gida hezkuntza-tresna garrantzitsua da bisitarientzat eta doan ematen da sarrerarekin batera. Eraikinaren arkitekturari eta erakusketei buruzko informazioa ematen du sistema horrek, eta Museoa modu autonomoan bisitatzeko aukera eskaintzen du. Halaber, zeinu-hizkuntzara egokitutako entzuteko gidak ere badaude aukeran, bai eta ezgaitasun psikikoak dituzten pertsonentzako egokitutakoak eta ikusmen-desgaitasunak dituzten pertsonentzako audio bidezko deskribapenak ere.

Jardunbide artistiko hezitzailea, sozializatzeko entretenimenduzko tresna soil gisa ulertu ordez, eraikitzeko

eta jakintza sortzeko benetan erabilgarria izango den tresna gisa ulertuta, Museoaren funtsezko helburua da hezkuntza-programazioa mantentzea eta indartzea, bai eta jardunbide eta hezkuntza-formatu berrietan sakontzea, arreta berezia eskainiz komunitateari eta haren balio eta behar sozialei. Horri esker, Museoak aldaketa sozialen motor gisa duen egitekoa indartuko du, prozesu pedagogiko eraldatzaileen bitartez eta hezkuntzako eragile parte-hartzaile ugarirekin batera, eta mesedegarria izango da epe luzerako elkarrekiko konpromiso sozialeko erantzukizunean oinarritutako Museoaren eta komunitatearen arteko harremanerako ere.



BEKA PROGRAMA
NEW YORKEN

Berriki lizentziatu diren edo gradu-ondokoren bat egiten ari diren Euskadiko ikasleei zuzenduta dago. Urtero lau lagunek izaten dute hiru hilabetez New Yorkeko Guggenheim Museoan alor ezberdinetan

praktikak egiteko aukera, besteak beste, Arte Arduraren, Garapenean, Kontserbazioan, Hezkuntzan, Erakusketen Diseinuan, Finantza arloan, Marketin arloan, Erregistroan eta Argazkigintzan; eta beren esperientzia osatzeko, galeriak, bilduma pribatuak, enkante-etxeak eta hiriko beste museo batzuk bisitatzen dituzte.

C.
Irisgarritasuna

EKIMEN NAGUSIAK

- Irisgarritasun Unibertsaleko Kudeaketa Sistema (UNE 170.001-2 araua) eta DALCO irizpideak betetzea
- Kolektibo jakin batzuen irisgarritasuna modu iraunkorrean hobetzeko hainbat ekimen garatzea
- Eraikinaren maketa tifologikoa garatzea
- Bideo-gida garatzea eta ezartzea

Guggenheim Bilbao Museoak nahi du pertsona guztiek askatasunez parte har dezatela kultura eta artearen munduan. Horregatik, berariazko ekimenak garatu ditu testuinguru jakinetan desabantailak izan ditzaketen kolektibo jakin batzuen irisgarritasuna hobetzeko (ezgaitasuna duten pertsonak, adineko pertsonak, etab.).



Europar, ondasunen eta zerbitzuen irisgarritasunaren beharra defendatzen duten ekimen asko dago. Euskadiko legeria, esaterako (Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea), oso aurreratua da irisgarritasunaren sustapenari dagokionez, eta zera ezartzen du: “Bizitza sozialean eta komunitarioan sartzea eta parte hartzea, bidezko den helburua ez ezik, pertsona orok edozein gizarte aurreraturat duen nahia ere bada. Hala ere, sarri askotan, eskubide horietaz baliatzea zaildu eta eragotzi ere egiten dute fisikoak zein komunikaziozkoak diren oztopoek, pertsonak era normalean moldatzea eragozten baitute. Gauzak horrela, ingurune fisikora eta komunikaziora irisgarritasuna izatea funtsezko elementuak dira, herritar guztiek oinarritzotzat definitzen diren eskubideez gozatu dezaten ahalbideratzeko”.

Baldintza horien jakitun, **Irisgarritasun Unibertsaleko Kudeaketa Sistema** ezartzeko eta ziurtatzeko prozesua abiarazi zuen Museoak 2003an, **UNE 170.001-2 arauaren arabera**, eta egiaztapen hori jasotzen lehena izan zen Estatuan, eta **DALCO (Ibiltzea, Atzematea, Lokalizazioa eta Komunikazioa) irizpideak** betetzen Europako lehen enpresa. Guggenheim Bilbao Museoak erabiltzailea gogobetetzera eta etengabeko hobekuntzara bideratutako kudeaketa sistema hori dauka, eta auditoretza objektiboak egiten ditu, helburu hauekin:

- Irisgarritasun unibertsaleko DALCO betekizunak eta aplikagarriak diren beste betekizunak betetzeko ingurune bat eskaintzea, eraikitako inguruneari dagokionez (galeriak, atariak edo instalazioak) eta artelanak ikusteko inguruneari (erakusketa-guneak eta Museorako bisitak) dagokionez, zein zerbitzu laguntzaileei dagokienez (Entzungela, hezkuntza-espazioak, denda, jatetxe eta taberna zerbitzuak...).
- Etengabe bilatzea ingurunearen irisgarritasun unibertsala hobetzea eta, horrekin, erabiltzailea gogobeteta senti dadin lortzea, sistema eraginkortasunez aplikatuta, etengabeko hobekuntzako prozesuak eta desadostasunen prebentzioa ere kontuan hartuta.

Museoaren irisgarritasun globaleko sistema bat dator legeria berrienarekin; legeria horrek hedatu egiten du irisgarritasun fisikoaren kontzeptua, eta aukera-berdintasuna, bazterkeriarik eza eta ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala jasotzen ditu.

Bi pertsona berdin ez daudenez, Guggenheim Bilbao Museoak aukera ematen du bisitari bakoitzak, bere hizkuntzaren, kulturaren, desgaitasunaren (fisikoa, sentsoriala, adimen-urritasuna...), prestakuntzaren, adinaren eta beste hainbat faktoreren arabera, instalazioak bere modura eta mailan bisita ditzan. Kolektibo ezberdinei ematen dien arreta eta zerbitzua egokituta eta pertsonalizatuta, pertsona guztiek Museoaz gozatzea eta arteari buruz duten ezagutza handiagoa berenganatu dezaten lortu nahi du Museoak, eta bisita eta esperientzia erabat gogobetegarria izatea.

Irisgarritasun-sistema hori aztertu eta aplikatzeak Museoaren irisgarritasun-maila pertsona guztiengana zabaltzera bideratutako hobekuntzak ezartzea ekarri du; hala nola::

- Oztopo arkitektonikoak kendu dira
- Ate automatikoak jarri dira
- Museoko igogailuetako ahots-sintetizadoreak hainbat hizkuntzatan
- Igogailuetako botoiak altura egoki eta irisgarrian jarri dira, eta seinaleak braille sisteman
- Hobekuntzak egin dira komunetan, errazago erabili ahal izan daitezen, eta haurtxoak aldatzeko zerbitzuak jarri dira
- Jasogailua jarri da Entzungelako eszenaurrera iristeko
- Gorpildun aulkiak edo eserlekuak adineko pertsonentzako edo mugikortasun urriko pertsonentzako; gainera, gorpildun aulkian daudenekin batera haiei laguntzen doazen pertsonak ez dute sarrera ordaindu behar
- Audio materialen idatzizko edizioa
- Museoko langileentzako prestakuntzako eta sentsibilizazioko jardunaldiak
- Irisgarritasunari buruzko liburuxka edo gida bat editatu da
- Hainbat hizkuntzatan daude zerbitzuak eta informazioak
- Hobetu eta indartu egin da seinaleztapena
- Museoko planoak braille sisteman
- Bisita gidatuak zeinuen hizkuntzan
- Museoko bideo-gidak

Proiektu eta ekimen nabarmen batzuk:



LANKIDETZA-HITZARMENA GORABIDEREKIN, IRISGARRITASUN KOGNITIBOAREN ALDE

2014az geroztik, Guggenheim Museoak Lankidetza-hitzarmena du Gorabide elkartearekin (Bizkaiko adimen ezgaitasuna duten pertsonei zein haien tutore diren senitarteko, familia, pertsona edo erakundeei laguntzeko irabazi asmorik gabeko erakundea), Museoan oztopo kognitiboak eta informazioa eskuratzeko oztopoak kentzeko elkarrekin lan egiteko zein edozein pertsonarentzako irisgarriagoak izango diren espazioak sortzeko helburuarekin.

Lankidetza horren hasieran, ulermen-arazoak izan ditzaketen kolektiboen beharretara egokitutako entzuteko gida bat garatu eta ezarri zen. Gailu horrek modu errazean deskribatzen ditu Museoaren Bildumako lanik ezagunenetako batzuk (Jeff Koons-en *Puppy* eta Louise Bourgeois-en *Ama*), bai eta eraikinaren arkitektura ere.

Erakunde biek elkarrekin lan egiten dute egunez egun, adimen ezgaitasuna duten pertsonei artea hurbiltzeko; horretarako, adierazpen artistikoko tailerrak eta bisita gidatuak egiten dituzte, eta espazio irisgarriagoak sortzea sustatzen dute.



UKIPEN-MAKETAK GARATZEA

ONCE Euskadi erakundearekin batera, Frank Gehryren eraikinaren eta *Puppy* eta *Mama* artelanen ukipen-maketak egin ditu Guggenheim Bilbao Museoak, ikusmen-ezgaitasuna duten bisitarienentzako.

Maketa horien helburua da kolektibo horri Museoaren arkitekturara eta artelan nagusietara hurbiltzeko bidea erraztea eta hobetzea, eta gaur egun dauden zerbitzuak osatzen dituzte (audio bidezko deskribapenak, *braille* sisteman edo goi-erliebean egindako laminak).

Halaber, kolektibo horren Museoko esperientzia eta bizipena hobetzen eta ikaskuntza-maila areagotzen laguntzen du ekimen horrek.



BIDEO-GIDAREN GARAPENA ETA EZARPENA

Museoa aitzindaria izan da tresna teknologikoen diseinuan eta ezarpenean; horixe da, esaterako, **bideo-gidaren** kasua. Entzumen-ezgaitasuna duten kolektiboek zuzenduta dago, eta erakusketen edukiei buruzko azalpenak gainerako bisitarien baldintza berberetan jasotzeko aukera ematen die, era horretan, kolektibo horren irisgarritasuna hobetuz Museoan.

Ekimen berritzaile hori Gorren Bizkaiko Koordinakundearekiko (COORVISOR) lankidetzari eta Acoustiguide marka ingelesaren euskarri teknologikoari esker gauzatu zen; Acoustiguide aitzindaria da ikus-entzunezko tresnak garatzen erakusketen edukia mundu osoko museoetako publikoari helarazteko.

Guggenheim Bilbao Museoak entzumen-ezgaitasuna duten pertsonen eskura jartzen duen bideo-gida ukipen-pantaila duen eta intuizioz erabil daitekeen multimedia kontsola da, erabiltzaileei Museoaren bilduma iraunkorrari eta eraikinari buruzko azalpenak eskaintzen dizkiena zeinu-hizkuntzaren eta azpititulu-sistemaren bitartez.

Horrez gain, behar bereziak dituzten pertsonen kolektiboek egokitutako jardueren eta bisiten diseinuan parte hartzen du Museoak, ondorengo erakundeekin lankidetzan: AVIFES Eguneako Zentroak, Gorabide Eguneako Zentroak, ONCE Taldeak, Osakidetzaren Osasun Mentaleko Sarea, AIDAE Elkartea, FEKOOR, LANTEGI BATUAK, Down Sindromea Fundazioak, APNABI, Uribe Kosta Elkartea (adimen-ezgaitasuna), ASASAM, ANFAS, Lurgorri Eguneako Zentroa, Durangoko Eguneako

Ospitalea, PROSAME MERINDADES, UDALOSTE Egoitza, ADEMBI, Zaldibarko Ospitalea, Areetako Eguneako Ospitalea, ASPACE, COCEMFE, Goienetxe Fundazioaren Eguneako Zentroa, ESQUIMA Elkartea, APAJH GIRONDE, MIFAS Taldea, Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa, CALIU Taldea, Nafarroako Unibertsitatea, AFEPMI, La Ola Zentroa.



D. Jende guztiarentzako moduko tarifak

EKIMEN NAGUSIAK

- Ekarpen sinbolikoak eta *online* bidezko edukia argitaratzea doan
- Kolektibo jakin batzuentzako hobariak: ikasleak, erretiratuak, familiak eta langabeak

Arte garaikidearen mundua gizarteari hurbiltzeko eta audientzia zabal eta anitza sar dadila bultzatzeko, Museoak era guztietako publikoarentzako moduko ekarpenen politika du, eta etengabe lantzen du *online* dagoen edukia doan.

Museoko sarreren prezioak maila ertainekoak dira, Estatuko eta nazioarteko beste museo-erakunde batzuenekin alderatuta. Gainera, sarrera bakarra aplikatzen du Museoak, bilduma iraunkorra eta une bakoitzean dauden erakusketa guztiak bisitatzeko aukera ematen duena, inolako gehigarririk gabe; sarreraren prezioan sartzen da entzuteko gida ere, sei hizkuntzatan dagoena, eta ibilbidea modu autonomoan egiteko aukera eskaintzen duena, erakusketa guztiei buruzko azalpen zabalekin. Artezaleek behin eta berriz bisitak egin ditzaten laguntzeko, Museoaren Lagunen Programa sortu zen, tarifa sinbolikoak dituen; tarifa horiek ez dira aldatu hamar urte baino gehiagoan, eta Museoen leialtasun-programa merkeenetako bat da.

Horrez gain, kategoria jakin batzuei zuzendutako hobarien maila handiari eusten dio Museoak; nabarmentzekoak dira kategoria hauek:

- Ikasleak
- Erretiratuak
- Familiak
- Langabezia dauden Lagunak

Are gehiago, urtean zehar hainbat aldiz —hala nola Museoen Nazioarteko Egunean, Gau Zurian eta Urteurreneko asteburuan— Museoa doan bisitatzeko aukera dute herritarrek,

eta arte modernoa eta garaikidea interesatzen zaien pertsona guztiei eskaintzen die erakusketak eta bilduma iraunkorra doan, batere oztopo ekonomikorik gabe, ikusteko aukera.

Halaber, hurbileneko kultura hedatzeko asmoz, eta gure erkidegoko beste museo-erakunde batzuekin lankidetzan, Guggenheim Bilbao Museoak hitzarmenak ditu Arte Ederren Museoarekin eta Bilboko Euskal Museoarekin, dagozkien Lagunen kolektiboek eta, oro har, bisitariei sarrera errazten dietenak.

Jarraian, beste ekimen batzuk xehatzen dira:

LANKIDETZA-HITZARMENA, HIRU EUSKAL UNIBERTSITATEEKIN

XX. Urteurrenaren barruan, lankidetzahitzarmena sustatu eta sinatu zuen hiru euskal unibertsitateekin —Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea—; hitzarmen horri esker, unibertsitate horietako edozein fakultatetan matrikulatutako ikasleek Museoaren Lagunak kolektiboko kide izateko aukera dute, urtean 5 euroko kopuru sinbolikoa ordainduta.

Ekimen horren helburua da ikasleak Museora erakartzea eta parte hartzera eta erakusketak bisitatzera animatzea eta, aldi berean, unibertsitate garaian jasotzen duten prestakuntza pertsonala eta akademikoa osatzen laguntzea.

ERDU PROGRAMA, LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEI ZUZENDUTAKOA

Programa hori 2013an jarri zen abian; langabezia dauden Europar Batasuneko pertsonei zuzenduta dago, eta erakundeko partaide izatea eta haien erakundearekiko lotura sustatzea du helburu. Museoak gizartearen zati handi baten aparteko babesak izan du bere ibilbidean zehar, eta neurri solidario horrekin jarraitzen du gaur egun, badakielako herritar asko ari direla zailtasunak izaten kiuntura sozial konplexu honetan.

E.

Eraldaketa digitala

EKIMEN NAGUSIAK

- Gizartearekiko interakziorako doaneko tresna digitalak (webgunea, aplikazioak, sarrerak saltzeko sistemak...)
- Erakusketetan elementu digitalak sartzea

Museoen lidergo artistiko, instituzional eta erakusketa-lidergoari lidergo digitala gehitu zaie azkeneko urteotan. Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da posizionamendu digitala oro har gizartearekiko, eta, zehatzago, bere audientzia eta hurbileneko komunitatearekiko, konexioa ezartzerako orduan. Guggenheim Bilbao Museoak ahalegin handia egiten du bere bisitariekiko eta, oro har, gizartearekin harremanetan eta komunikazioan aurrera egiteko, interakzio-maila handiagoa bultzatuz. Helburu hori lortzen laguntzeko, eraldaketa digitalaren aldeko apustu argia egin du Museoak, honako xedeak lortzen lagunduko dituzten tresnen garapena bultzatuz:

- Bisita erraztea, Museoko esperientzia aberastea eta, batzuetan, bisitaren aurretiazko eta ondorengo esperientzia hobetzea (online bidezko edukia)
- Arte garaikidearen mundua hurbiltzea, hezkuntzarekiko eta zabalkundearekiko dituen konpromisoak sustatuz
- Museoaren iraunkortasuna bermatzea, bisitari kopurua, Museoaren Lagunen kideena, Kide Korporatiboena eta Jarraitzaileena handitu daitezen lan eginez

Museoak bere bisitarien eta gizartearen eskura jartzen dituen tresna digitalen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- *Webgunea* (lau hizkuntzatan): Museoaren jardueri eta zerbitzuei buruzko informazioa, jende asko dabilen sasoiaren itxaron beharreko denborei buruzko informazioa, baliabide, ordutegi eta tarifei buruzko informazioa ematen duena eta, Museora sartzeko denbora optimizatzeko, sarrerak *online* erosteko aukera eskaintzen duena, besteak beste.
- *Sarrerak erosteko sistema berriak, QR kodeak jaitzita*; era horretan, errazagoa da Museora zuzenean sartzea, txarteldegitik pasa behar izan gabe.
- *Community*: eduki digitala gehitu da, webgunearen bitartez jaitzi (bideoak eta albisteak) eta eskura daitekeena.
- *Elementu digitalak erabiltzen* dira erakusketa jakin batzuetan, bisita aberaste aldera (adibidez, errealitate birtuala, webcama...).
- *Presentzia iTunes aplikazioan*: kalitatezko edukia erabiltzaileen eskura (batez ere irakasleen eta ikasleen eskura), doan eta gailu ezberdinetatik eskuragarri. Ikuspegi pedagogiko horretatik, 40 ikastaro prestatu ditu Museoak, Bildumako lan iraunkorrei eta berariazko kokalekuak dituztenei buruzko euskarazko eta gaztelarazko unitate didaktiko interaktiboekin eta hiru bideo bildumarekin. Gainera, lankidetzaren harremanak sortu da Apple-ekin; horrela, Museoak bere posizionamendua eta lidergoa mantentzen ditu lankidetzaren arloan sektore horretako erakunde garrantzitsuenetako batekin.
- *Presentzia Google Arts & Culture aplikazioan*; dagoen aliantzari esker, Guggenheim Bilbao Museori eskainitako espazio bat sortu dute plataforma horren barruan, ondoren adierazten diren edukiak jasotzen dituenak:

- Museoko funtsetako hogeita hamar bat artelan, beren argibide-testuekin
- Bildumako maisu-lanen erakusketa birtuala
- bereizmen oso handian (gigapixeletan) eskaneatutako lanak, oharkabea pasa daitezkeen xehetasunak ikusteko aukera ematen dutenak
- Museoaren kanpoko aldearen, eraikinaren barruko aldearen eta publikoa sar ezin daitezkeen terrazen Street View ibilbideak
- eduki gehigarriak, eraldaketa digitalarekin eta teknologia berriekin, Museoaren irudi moderno eta berriaren proiektzioarekin eta irakurketa berriekin lotutako ikuspegi berriak bateratuz, jende gaztea erakartzeko



2.2

INTEGRAZIOARI ETA GIZARTERATZEARI EGITEN DION EKARPENA

Museoak gizartearekiko duen konpromisoa ez da mugatzen bere instalazioetan garatzen dituen ekimen eta zerbitzuetara. Ildo horretan, gizartean kulturaren zabalkundea egiteko tresnatzat balio izateko duen bokazioari eta lurraldearen garapenean eta kohesio sozialean laguntzeko duen nahiari eta konpromisoari jarraiki, gizarteratzeko zailtasunak dituzten eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden berariazko kolektiboek zuzendutako hainbat programa eskaintzen du Museoak.

EKIMEN NAGUSIAK

- Boluntario-programa
 - Artez busti programa
 - Sortu eta Sendatu programa
 - Lankidetzaren Ortuellako Zentro Terapeutikoarekin eta Hogar Izarra Zentro Terapeutikoarekin
-

A.

Boluntario-programa

Boluntario-programa da Guggenheim Bilbao Museoak bere gizarte erantzukizuna eta artea eta kultura publiko anitzei hurbiltzeko duen zeregina gauzatzeko bide nagusienetako bat. Museoa abian jarri zenean ekin zion bere ibilbideari Programa sozial horrek eta pertsona boluntarioek garatzen dute; laguntza-lanak egiten dituzte Museoan bertan, edo Bizkaiko hainbat elkartetan kolektibo eta taldeei zuzenduta antolatzen diren hitzaldi informalak eta arte-tailerrak aurrera eramaten laguntzen dute.

Museoaren Lagunak kolektiboari zuzenduta dago Boluntario-programa; kolektibo horrek kolaboratzeko interes handia erakusten du, eta garatzen diren jarduera guztietan parte hartzen du modu aktiboan, beti ere gizartearekiko duen bere konpromiso hezitzailearen ikuspuntutik. Programaren baitan, Museoaren sail ezberdinekin jarduten dute lankidetzan Boluntarioek, parte hartzeko modalitate

ezberdinetan, dituzten aukeren arabera. Jarduera jakin batzuetan parte hartzen duten pertsonen orientazioa eta laguntza ematea; bisitariei eta Lagunen kolektiboari erakusketei, jarduerari eta zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea; eta arte modernoari eta garaikideari buruzko hastapeneko hitzaldi eta tailerrak ematea; horietatik dira boluntarioek Museoarekin lankidetzan egiten dituzten lanetako batzuk, gizartearekiko duen konpromiso hezitzailea mantentzeko.

Hain zuzen ere, urritik ekainera garatzen dira Museoaren instalazioetatik kanpo antolatzen diren hitzaldiak eta tailerrak; batez ere Bizkaiko aisialdiko elkarrekin, adineko pertsonen, etorkinen eta errehabilitazioan dauden elkarrekin, eta kultura etxeetan egiten dira jarduerok. Lau saio izaten ditu programa bakoitzak (hiru hitzaldi eta tailer eta Museora bisita), eta irakaskuntzan, arlo sozialean eta/edo artistikoan esperientzia duten boluntarioen lankidetzarekin garatzen dira. Jardueraren edukia Museoaren programazio artistikoarekin eta arkitekturekin lotuta dago batez ere, eta talde bakoitzeko arduradunekin lankidetzan diseinatzeko da, haien beharrei erantzuteko helburuz.



B.

Artez busti programa

BBK-k babestutako *Artez busti* programa osatzen duten lan-ildoetako bat “bisita” kontzeptuan oinarritzen da, eta modalitate eta jakintza-maila ezberdinak eskaintzen ditu, onuradunen ezaugarrien arabera. Besteak beste, bisita sozial hauek nabarmentzen dira:

- Kolektibo babesgabeentzako eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden kolektiboentzako bisitak: Bisita gidatuak eta noizean behingo tailerrak, parte-hartzaileen ezaugarrien arabera nahierara diseinatzeko direnak, droga-mendekotasunengatik errehabilitazioan dauden pertsonak, etorkinak edo baliabiderik gabeko pertsonak izaten dira gehienak.
- Behar bereziak dituzten pertsonen kolektiboentzako bisitak: Ezgaitasun fisikoak eta/edo psikikoak dituzten taldeei egokitutako bisita gidatuak.
- Astelehenetan, gainera, Museoaren itxita dagoen egunean, ukimen-bisitak egiteko aukera ematen zaie itsuei edo ikusmen-urritasuna dutenei. Halaber, zeinu-hizkuntzako interprete-gidekin egokitutako bisitak ere antolatzen ditu Museoak.



C.

Sortu eta Sendatu programa

Guggenheim Bilbao Museoaren eta Osakidetzaren arteko lankidetzaren bati esker, eta BBKren babesarekin, 2007. urteaz geroztik, Gurutzetako eta Basurtuko ospitaleetara eramaten ditu Museoak familientzako hainbat jardura, eskuarki Museoaren instalazioetan bertan garatzen direnak.

Erakunde ezberdinek hezkuntzaren alorrean dituzten esperientzietatik abiatuta, jardueren programazio bat garatzen da ospitale bietako haurren sekzioetan; programazio horrek, besteak beste, artearen ekoizpena eta ulermena lantzen ditu ikaskuntzarako estimulu gisa eta tresna pedagogiko eta terapeutiko gisa. Modu jarraituan edo aldi baterako ospitaleratuta dauden edo tarteka ospitalera joan beharra duten hiru eta hamasei urte bitarteko haurrei dago zuzenduta ekimen hori.



D. Ortuellako Zentro Terapeutikoa eta Hogar Izarra Zentro Terapeutikoa

Unitate Terapeutiko-Hezitzailea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Euskal Osasun Zerbitzuaren (Osakidetza) arteko hitzarmenaren emaitza da; helburua da nahasmendu psikiatriko larriak dituzten eta, une jakin batean, eskola-ingurune normalizatuak eta/edo Osasun Mentaleko Zentroak artatzeko zailtasunak dituzten haurrei eta nerabeei arreta intentsiboa eta integrala ematea.

2015eko azaroan jarri zen abian Museoaren arte-tailerren programa, eta interes komuneko talde txikitan eskaini ohi diren tailerren barruan sartzen da; talde horiek duten bilakaeraren eta gaitasunen arabera sortzen dira. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasle talde batek parte hartzen du tailerretan, bai eta Museoko bi artista-hezitzailek ere; asteen bi aldiz joaten dira hezitzaileok eguneko zentrora, hango langileen laguntzarekin, ordu eta erdiko tailerrak ematera. Museorako bisita da programa horren zati garrantzitsu bat, haur eta nerabeen sozializazio-egoera bat izaten baita; era horretan, arte garaikidea elementu integratzaile eta inklusibo bihurtzen da.

Ekimen hori Hogar Izarra Elkarteari (Osasun mentaleko komunitate terapeutiko integratzailea) ere hedatu zaio. Osasun mentaleko diagnostiko larriak dituzten pertsona helduen laguntzarako zentroa da Izarra; pertsona horietako batzuk egoitzan bertan bizi dira, eta beste batzuk tarteka joaten dira, beren terapietan babesa jasotzera.

E. Lankidetza Prosegur Fundazioarekin

Ezgaitasunen bat duten pertsonen integratzeko dituzten zailtasunen jakitun, Guggenheim Bilbao Museoak eta Prosegur Fundazioak lankidetzan garatzen dituzte pertsona horien lan-merkaturatzea bermatzera eta haien enplegarritasuna hobetzera bideratutako ekintza eta plan zehatzak —Museoan bertan publikoarenganako arretan—; horrela, Museoa erreferente da sentsibilitate sozialean.

2.3 ARTEAREKIKO KONPROMISOA

Museoak arte garaikidearen sustatzaile garrantzitsu gisa jarduten du, batez ere proposamen sortzaile berritzaileen sustatzaile gisa, bisitariei maila goreneko artista garaikideen artelanak ezagutzeko aukera emanaz.

Halaber, etengabe hobetzeko duen bokazioak bultzatuta, Guggenheim Bilbao Museoak ahalegin eta baliabide ugari bideratzen du bere arte-ondarearen mantenura, ondare hori behar bezala kontserbatzeko helburuz.

EKIMEN NAGUSIAK

- Nazioarte-mailako Bilduma propioa
- Arte-programazio dinamiko eta anitza
- Euskal artisten egonaldiak New Yorken
- Jakintza-sorkuntzarekiko eta ikerkuntza-programekiko konpromisoa

A.

Bilduma eta programazio artistikoa

Guggenheim Bilbao Museoa aurreko mendeko 1990eko hamarkadan sortu zen, Euskal Erakundearen eta Solomon R. Guggenheim Foundation amerikar fundazio pribatuaren arteko aliantza aitzindari baten eskutik; fundazio hori arte modernoaren eta garaikidearen munduko prestigio handieneko bildumetako baten jabe da, eta une hartan bi museo kudeatzen zituen, bata New Yorken eta bestea Venezian, eta Europako beste leku batzuetan hedatzeko aukerak aztertzen ari zen. Funtzionamendu-eredu hori berritzailea eta garai hartan eztabaidatua izan zen, baina denborarekin, arrakastaz funtzionatu duela erakutsi du: Guggenheim Bilbao Museoa nazioarteko sare baten barruko jardunaren lehen adibidea izan zen, eta gerora, eredu horri jarraitu diote kultura arloko beste erakunde batzuek, Pompidouk, Louvrek eta Tatek, esaterako.

Bere ibilbidean zehar, munduan erreferente den kultura-erakunde izatera iritsi da Guggenheim Bilbao Museoa, hiru oinarri sendotan sostengatuta: lehenik eta behin, bere bilduma iraunkorrean; herrialde askotako ia ehun artistaren artelan esanguratsu sorta handiak osatzen du bilduma hori, XX. mende erdialdetik gaur egunera arteko lanek. Ondo kohesionatutako artelanez osatutako sorta nagusi bat dago, Bigarren Mundu Gerra ondorengo Amerikako Estatu Batuetako eta Europako pinturan eta eskulturan zentratuta dagoena. Funts horien ezaugarri nagusiak dira haien aniztasuna eta koherentzia; arte garaikidearen ikono diren lan batzuk daude tartean, eta Museoa sortzearekin batera arreta handiz sortutako erosketen metodologiaren arrakastaren lekuko dira.

Bilduma sortzearen helburu nagusia zen arte garaikideko artelanen espektro zabal bat biltzea, autonomia eta esanahi propioduna, baina, aldi batean, Solomon R. Guggenheim Foundation-en arte moderno eta garaikideko funts bikainak osatuko zituen. Sare partekatu baten barruan bilduma indibidualak egotearen ideia elkartruke kulturala bultzatzen

duen “museo globalaren” kontzeptu berritzailearen ardatza da, eta artearen hedapena eta obrak publiko zabal eta anitzarengana iristea sustatzen du.

Bilduma Propioa sortzerakoan, euskal arteari arreta berezia eskaini izana da nabarmendu beharreko lehentasunetako bat; presentzia handia du euskal arteak Guggenheim Bilbao Museoaren funtsetan: Bilduma osatzen duten artelanen laurdena inguru Euskadiko artistek egindakoak dira.

Bilduma horri maila goreneko arte-programazio gehitu behar diogu, orekatua, dinamikoa eta anitza, XX. eta XXI. mendeetako artista eta mugimendu nagusien lanari errepasoa egiten diona, eta hezkuntza-programazioa, audientzia unibertsal batengana iristera bideratutakoa, ikuspegi didaktiko, parte-hartzaile eta inklusibo batekin.

Guggenheim markarekiko aliantzak aukera eman dio Guggenheim Bilbao Museoari maila goreneko beste museo-erakunde batzuekin harremanak izan eta hainbat proiektutan parte hartzeko: New Yorkeko MoMA, Whitney eta Metropolitan; Los Angeleseko LACMA eta MOCA; Pariseko Pompidou; Londoneko Tate, Victoria & Albert eta Royal Academy; Vienako Albertina; Basileako Beyeler Fundazioa; San Petersburgoko Hermitage, Moskuko Tretyakov eta mundu osoko eta Estatuko eta Euskadiko beste museo askorekin izan ditu harremanak.



EUSKAL ARTISTEN EGONALDIAK NEW YORKEN

Nabarmentzen hasi diren bi euskal artistari New Yorken lau aste igarotzeko aukera ematen dien egonaldi-programa bat eskaintzen du Museoak urtero; ekimen horren helburua da artistok New Yorkeko arte mundua hobeto ezagutzea eta, era horretan, beren helburu eta arte-gaitasunetan aurrera egitea. Egonaldi horietan, esperientzia sakona bizi izaten dute hautatutako pertsonak, eta museoak, galeriak eta artisten estudioak bisitatzen dituzte, New Yorkeko Guggenheim Museoko profesionalen eskutik.

B.

Jakintza-sorkuntzarekiko eta ikerkuntza-programekiko konpromisoa

Museoak bere arte-ondarea kontserbatzeko eta zaintzeko konpromiso irmoa du. Helburu horrekin, eta etengabe hobetzeko premisan oinarrituta, ahalegin eta baliabide nabarmenak bideratzen ditu ikerkuntza- eta berrikuntza-jardueretara.

Hain zuzen ere, berrikuntzarekiko konpromisoari eustea identifikatzen du bere helburu estrategikotzat; hala, lurraldera talentua eta aberastasuna ekarriko duten proiektuak zuzendu edo horietan parte hartzen du.

Berritzaile izatea ez da bakarrik teknologian inbertsio handiak egitea, baizik eta artea gero eta anitzagoa eta zorrotzagoa den publiko bati hurbiltzeko modu berriak asmatzea, publikoa diziplina anitzeko ikuspegietatik eta ikuspegi berrietatik hezten laguntzea edo bere kudeaketari, maila ezberdinetan, arlo pribatuaren eta publikoaren arteko partaidetza konbinatuko dituen eredu mistoa aplikatzea. Museoak berrikuntza aplikatzen du Arte Ardura arloak Bildumaren inguruan egiten duen ikerlanean, baita Kontserbazio arloan eta Hezkuntza arloan eta arlo horietako programa didaktikoetan ere. Berrikuntzari esker, Museoak eguneratu egiten da, aldatzen ari den testuingurura egokitzen da, berriro definitzen eta taxutzen du bere burua, publiko, egoera eta exijentzia berrietara egokitzeko.

Konpromiso horretan erabat sinetsita, Museoaren Misioren funtsezko alderdia da arte modernoaren eta garaikidearen inguruko ikerkuntza. Hain zuzen ere, Museoak etengabe egiten ditu ikerkuntza-lanak Arte Ardura eta Kontserbazio arloetan, Bilduma Propioarekin, Guggenheim Bilbao Bildumarekin, Guggenheim Museoen bildumekin, gordailuan dauden artelaneekin eta aldi baterako erakusketak osatzen dituzten lanekin lotutako proiektuen inguruan.

- **Kontserbazioari buruzko ikerketa:** artelanen teknikak eta materialak ikertzen ditu, bai eta horiek hondatzearen arrazoiak eta prozesuak ere, eta artelanen egoera onena bermatzeko beharrezko kontserbazio-neurriak ezartzen ditu.

Gainera, ahalegin handia bideratzen da prebentziozko kontserbaziora; horretarako, artelanak gordetzeko, manipulatzeko eta erakusteko baldintzak aztertu, egokitu eta optimizatzen dira.



Kontserbazioaren arloko ikerkuntzaren jarduketa-ildo nagusiak dira:

- Bilduma Propioaren artelanak ikertzea
- Prebentziozko kontserbaziorako protokolo eta prozedura berriak definitzea eta ezartzea
- Ikerkuntza-proiektuak garatzea, beste museo eta erakunde batzuekin lankidetzan
- Kultura-ondarea zaintzearen arloko erakundeekin kolaboratzea eta modu aktiboan parte hartzea foro profesionaletan

- **Arte Ardura arloaren ikerlana:** Museoarentzat funtsezko lana da Guggenheim Bilbao Bildumako artelanak, Guggenheim Museoen bildumako artelanak, gordailuan daudenak eta aldi baterako erakusketak osatzen dituzten lanak Arte Arduraren ikuspuntutik ikertzea. Honako hauek dira Arte Arduraren ikerketaren ildo nagusiak:
 - Guggenheim Museoen Bilduma Iraunkorra
 - Guggenheim Bilbao Museoren Bildumaren hainbat artelan, duten esanahi artistikoagatik Artearen Historian erreferente bihurtu direnak
 - Bilduma Propioaren barruan ordezkagarritasun garrantzitsua duten artisten lanak
 - Guggenheim Bilbao Museorako bereziki sortu diren lanak eta proiektuak, kokapen zehatza dutenak
 - Bigarren Mundu Gerra ondorengo artea eta AEBko eta Europako agertoki artistikoen arteko elkarriketa
 - Euskal eta espainiar artea
 - Museoaren eraikina, XX. mendeko arkitekturaren lan enblematikoa dena



2.4

BILBO, BIZKAIA ETA EUSKADIREKIKO KONPROMISOA

Museoa izan da Bilbo hiria eraldatzeko motorretako bat, eta hiria berroneratzeko prozesuaren ardatz nagusietako bat; bisitariak erakarri ditu, eta horrek eskari turistikoa bultzatu eta bere mailako eskaintza sustatu du. Gainera, elementu mediatiko bat izan da, nazioartean oihartzun handia izan duena, eta hiriari eta herrialdeari berrikuntzaren abangoardian dagoen sare bateko kide izateko aukera eman diona. Ildo horretan, Museoak egunero laguntzen du gero eta handiagoa den balio erantsia sortzen, eta zuzeneko eragina du erakundeen eta gizartearen beharrak asetzen eta haien itxaropenak betetzen.

EKIMEN NAGUSIAK

- Inpaktu ekonomikoa eta nazioarteko eragina
- Gardentasuna eta Gobernu Ona

A.

Inpaktu ekonomikoa eta nazioarteko eragina

Kulturaren eta ekonomiaren arteko harremanaz hitz egiterakoan, Museoari dagokionez, berariazko interesetako bat da soberan frogatu dela Museoak eraldaketa-prozesu baten eragile gisa jardun duela: Abandoibarra zona marjinal bat izatetik mende honetako Bilboren aukerazko espazio bihurtzeko hiri-berroneratzea dinamizatu du, garapen ekonomikoko eragile izan da, Bizkaiko eta Euskadiko egitura produktiboa dibertsifikatzen lagundu baitu, eta auto-estimuko kolektiboa berreskuratzen lagunduz; era horretan, gure herrialdearen ikur bihurtu da munduan.

Zentzu horretan, bere jarduerak sortutako inpaktu ekonomikoa neurtzeko azterlanak egiten ditu Museoak, 1998. urteaz geroztik. Azterlan horien arabera, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak urtero sortzen duen guztizko eskaria —eragin zuzenak, zeharkakoak eta induzitua barne— 400 milioi eurotik gorakoa da; horrek esan nahi du 60 milioi eurotik gorako diru-sarrera gehigarriak eskuratzen dituztela urtero Euskal Ogasunek, eta 9.000 bat lanpostu mantentzen direla.

Halaber, bere jarduerari buruz zortzi herrialdetan —Espainian, Frantzian, Alemanian, Italian, Britainia Handian, Portugalen, Holandan eta Amerikako Estatu Batuetan— argitaratutako albisteen publizitate-balioa aztertzen du urtero. Eraitza urteko 40 milioi euro ingurukoa da batez beste, 20.000 albiste baino gehiagorekin, eta 6.000 milioi irakurlerekin.

Guggenheim Bilbao Museoa existitzeak, gainera, aukera eman die herritarrei maila goreneko artelan eta artista garaikideak ezagutzeko; gainera, arteak duen balioagatiko interesa handitu, eta hiriaren kidesun-sentimendua sortu eta Bilboren irudia hobetu du toki, estatu zein nazioarte mailan. Halaber, arlo publikoa eta pribatua batzen dituen kudeaketa-eredu berritzailea antolatzeak eta museo-erakundearen artean ez-ohikoak diren auto-finantzazio maila handiak lortzeak, erreferente gisa kokatu du Museoa inguruko beste kultura-erakunde batzuentzat.

Besteak beste arrazoi horientatik, hainbat sari jaso ditu bere historian zehar Museoaren jardura artistikoaren zenbait alderdik: turismoaren industrian izan duen eragina, eraikinaren inpaktua, sortutako jardura ekonomikoa eta bere kudeaketaren gardentasuna, esaterako. Hona hemen adibide nabarmenenetako batzuk:

- Urrezko Domina Arte Ederrei, 1998
- Urteko Europako Museoa, 2000
- Mundu Modernoko Miraria, 2002
- Euskalit-en Zilarrezko Q saria, 2004
- Meritu Turistikoari Plaka. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa, 2005
- Euskal Herritar Unibertsala Saria, 2007
- Capital Bilbo Hiria Saria, Capital aldizkariak ematen duena, Bilboren kanpoko irudia ondoen proiektatzen duen erakundeari ematen zaiona
- Jasangarritasunari Sarea, Bizkaia Sarean Enpresa Sariketaren II. Edizioaren barruan, 2012
- Bizkaitar Argia, 2015
- Estatuko Museorik Gardenena (2015, 2016 eta 2017)
- Bilbo Hiriaren Enbaxadore Saria, 2017

B.

Gardentasuna eta Gobernu Ona

Guggenheim Bilbao Museoaren Gobernu Onaren funtsezko oinarrien artean, nabarmentzekoak dira gardentasun printzipioa, jokaera etikoa eta, oro har, erakundearen jardunbide egokien garapena.

Ikuspegi horrekin, eta printzipio horiekin hartutako konpromisoari erantzunez, *Estatuko museorik gardenenaren* saria jaso zuen Guggenheim Bilbao Museoak 2017an, hirugarren urtez jarraian; Konpromisoa eta Gardentasuna Fundazioak egiten du Museoen Gardentasunaren ranking hori, Kultura eta Jardunbide Egokien Foroaren lankidetzarekin.

Webgunea ezinbesteko tresna da informazioaren gardentasunari dagokionez; webgunearen bitartez ematen du Guggenheim Bilbao Museoak bere jardunari eta zerbitzuei buruzko informazioa, bai eta informazio korporatiboa ere: Zeregina, Asmoa eta Balioak; Plan Estrategikoa; Jardueraren Memoria; informazio ekonomikoa eta finantzarioa, etab.; informazio hori eskuragarri dute jabeek zein gizarteak oro har.

Halaber, Museoak Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodea ditu, bere jardura gidatzen duen konpromiso etikoa jasotzen duena; ikuspegi arduratsu eta etiko batetik, Museoan jokaera indibidualak zein kolektiboak zuzentzen dituzten printzipioak eta jardunbide egokiak xehatzen dira kode horretan; honako helburu hauek ditu:

- Exijitu beharreko jarraibideak eta jokaerak jasotzea
- Museoaren eta Museoak zerbitzatzen duen komunitatearen arteko harremanaren oinarri izan behar den konfiantza ziurtatuko duten jokabideak eta estandarrak formulatzea
- Jarduteko gida gisa balio izatea eguneroko kudeaketan eta lanean, eta norbanakoaren erantzukizunaren irismena ezartzea



ZILARREZKO Q-A

Museoaren kudeaketa-eredua EFQM erabateko kalitate-sisteman oinarritzen da; eredu horrek antolatzen du bere jarduna, eta etengabeko hobekuntza bilatzen du. 2004. urte amaieran, bere kudeaketa-ereduaren kanpoko ebaluazioa egitea erabaki zuen Museoak, Euskaliten eskutik, eta Eusko Jaurlaritzaren “Zilarrezko Q” kalitatearen saria jaso zuen.

Aitzindari izan zen sari hori jasotzen, Europan ziurtagiri hori lortu zuen lehenengo museoa izan baitzen. Sari hori jasotzeak enpresa-bikaintasunaren EFQM ereduaren jorratzen egindako lau urteko prozesuari; lau urte horietan, Museoaren prozesuak identifikatu eta etengabe hobetzeko zikloak ezarri zituen Museoak.

Gizarte erantzukizuna da sistema horren zeharkako elementuetako bat; horren bitartez, bere interes-taldeen nahiak ezagutzen eta horiei erantzuna ematen saiatzen da Museoa, ikuspuntu etiko eta garden batekin eta, erakunde arduratsu den aldetik, lortutako emaitzen berri emanez.

EFQM sistema ezartzeak politika formalak bultzatu ditu eta, horren ondorioz, ekintza zehatzak egin dira garapenaren, ingurumenaren eta gizartearen arloetan; horrek, halaber, zuzeneko onurak ekarri dizkio komunitateari.

2.5

INGURUMENAREKIKO ERANTZUKIZUNA

Guggenheim Bilbao Museoak ingurumena zaintzeko erabateko konpromisoa du; horrela, garapen jasangarriko printzipioetan oinarrituta garatzen du bere jarduna. Zentzu horretan, Museoak hartu dituen neurriak bere jardunaren ingurumen-inpaktuak minimizatzen eta ekosistema zaintzera bideratuta daude; horrela, naturaren kontserbazioa bultzatzen du eta eko-eraginkortasunera bideratutako jarduna sustatzen du, hau da, ahalik eta inpakturik txikiena eraginda, baliabideen ahalik eta aprobetxamendurik handiena lortzea du helburu.

Bere ibilbideari ekin zionetik, Guggenheim Bilbao Museoak, lege-esparru guztietako eta baimen, lizentzia eta abarretatik eratorritako betebeharrekin lotutako ingurumenaren alorreko araudia betetzea bermatzeaz gain, eta ahal den neurrian, konpromiso hori gainditu nahi izan du.

Helburu horrekin, kutsadura prebenitzeko eta hondakinak kontrolatzeko sistemak eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko irizpideak ezarri zituen Museoak; gaur egun ere funtsezko elementuak dira Museoaren eguneroko jardunean.

EKIMEN NAGUSIAK

- Kudeaketa-sistema eta Ingurumen-politika
 - Energia optimizatzeko eta energia-kontsumoak murrizteko ekimen nabarmenak
-

A.

Ingurumena kudeatzeko sistema

Erakundeak ingurumenarekiko zuen kezkaren ondorioz, **lege-esparruaren eta UNE-EN-ISO 14.001 Arauaren araberako Ingurumena Kudeatzeko Sistema** ezartzeari zegokion ziurtagiria eskuratu zuen 2004an; azkeneko urteetan, arau berriari egokitu zaiona (UNE-EN-ISO 14001:2015, aurrerantzean ISO 14001).

Gaur egun, ingurumenaren etengabeko hobekuntzarako sistema du Museoak, bere jarduerak eta zerbitzuek ingurumenean duten inpaktua kontrolatzeko egitura bat izateko eta bere jarduna etengabe hobetzeko kudeaketa eraginkor bat garatzeko aukera ematen diona. Era horretan, Museoak kutsadura prebenitzen du, ingurumenean duen inpaktua kontrolatzen du eta hondakinen sorkuntza minimizatzen du, hondakinok modu egokian kudeatuta.

ISO 14.001 kudeaketa-sistema hainbat prozesuz osatuta dago; prozesu horiek barne zein kanpo mailan ikuskatzen dira, auditoretzak egiten zaizkie, ingurumenari dagozkion hobekuntzak ezartzeko eta horiek zorrotz aplikatzen direla ziurtatzeko. Hain zuzen ere, Ingurumena Kudeatzeko



Sistema Guggenheim Bilbao Museoa osatzen duten instalazio guztiei eta instalazio horietan egiten diren jarduera eta zerbitzuei aplikatzen zaie (artelanen muntaia eta erakusketa, eta askotariko zerbitzuak: jatetxea, kafetegia, liburutegia, denda, liburu-denda, auditorioa eta bulegoak), eta honako hauek dira bere helburu nagusiak:

- a) Ingurumena babestea, ingurumen-inpaktu kaltegarriak prebenituta eta arinduta
- b) Ingurumen-jarduna hobetzea
- c) Legezko betekizunak eta erakundeak sina ditzakeen beste betekizun batzuk betetzea
- d) Erakundeak bere zerbitzuak ematen eta bere jarduerak gauzatzen dituen moduak kontrolatzea eta horiengan eragitea, ingurumen-inpaktuak, nahi gabe, bizitza-zikloaren beste etapa batera eramatea prebeni ditzakeen bizitza-zikloaren ikuspegi bat erabilita
- e) Erakundearen posizioa indartuko duten ingurumenarekiko errespetuzko aukerak ezartzearen emaitza izan daitezkeen operazio-onurak lortzea

Museoak ingurumena zaintzearen eta errespetatzearen alde egiten duen apustua ez da gauzatzen bakarrik bere jarduera eta zerbitzuak jasangarritasun-premisen pean garatuta, baizik eta baita Museoaren Zuzendaritzak ingurumena kudeatzeko sistemarekiko erakutsi duen konpromisoan ere, ekintza hauen bitartez:

- Bere gain hartzea ingurumena kudeatzeko sistemaren eraginkortasunari dagokion erantzukizuna eta kontu-ematea
- Ingurumen-politika eta -helburuak ezartzen direla eta horiek erakundearen zuzendaritza estrategikoarekin eta testuinguruarekin bateragarriak direla ziurtatzea
- Ingurumena kudeatzeko sistemaren betekizunak erakundearen negozio-prozesuetan txertatzen direla ziurtatzea

- Kudeaketa-sistamarako beharrezko baliabideak erabilgarri egon daitezela bermatzea
- Ingurumena kudeatzeko sistemaren betekizunak betetzen dituen ingurumen-kudeaketa eraginkor batek duen garrantzia aditzera ematea
- Ingurumena kudeatzeko sistemak aurreikusitako emaitzak lortzea baliozkotzea
- Pertsonak zuzendu eta haiei laguntzea, ingurumena kudeatzeko sistema eraginkorra izan dadin bermatzeko
- Etengabeko hobekuntza sustatzea
- Zuzendaritzari dagozkion eginkizunetan laguntzea, dagozkion erantzukizun-arloak aplikatuko duen moduan bere lidergoa erakusteko

Horri guztiari gehitu behar zaio langileen eta Museoaren hornitzaileen artean ingurumenarekiko errespetuzko jarrera sustatzea.

B.

Ingurumen-politika

Ingurumena hobetzen laguntzea Guggenheim Bilbao Museoa helburuetako bat da aspalditik: “Museoaren jasangarritasuna hobetzen lagunduko duten formula berriak identifikatzea, Ekimen estrategikoak ezartzea ahalbidetzeko helburuz”.

Horregatik, eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren funtsezko elementu gisa, Museoaren Zuzendaritzak, bere ingurumen-politikaren bitartez, ezartzen du egiten diren jarduera guztien funtsezko helburuetako bat izan behar dela ingurumena zaintzea, eta hori bateragarria izan behar dela Museoaren izaerarekin, magnitudearekin eta ingurumen-inpaktuekin.

Helburu hori lortzeko, ondorengo konpromisoak ezarri ditu Museoak oinarizko printzipiotzat:

- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat ezartzea eta eguneratuta mantentzea, ingurumena babesteko —kutsaduraren prebentzioa barne— eta sortutako ingurumen-alderdiak kontrolatzeko aukera emango duena eta, era horretan, etengabe hobetzeko prozesuarekin, ingurumenari eta kudeaketa-sistemari dagokionez behar bezala jarduten laguntzea erakundearen jarduera guztietan.




- Ingurumena Kudeatzeko Sistema etengabeko aurrerapen-egoeran dago, bere egiturari (dokumentazioa, antolamendua, etab.) zein urteko helburu zehatzei dagokienez. Langile guztien inizatiba du aurrerapen horrek, Zuzendaritzak sustatuta.
- Ingurumenaren arloan aplikatu beharreko lege-esparru guztietatik datorren legeria betetzea, Fundazioak izenpe dezakeen erakundearen testuinguruari dagozkion beste konpromiso batzuk barne.
- Ingurumenaren arloko araudia betetzea, eta ingurumena babesteko eta errespetatzeko hornitzaileen jarrerak baloraziorako alderdi gisa sartzan dira erosketa- eta zerbitzu-kontratuetan.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemarako informazio-sistema bat ezartzea —planak, emaitzak, aurrerapenak, gorabeherak, etab.—, interesdun aldean informazio-eskariei erantzutea ahalbidetuko duena. Museoan ezarritako kanpo-komunikazioko sistemaren bitartez, jendearen eskura jartzen da ingurumen-politika.
- Komunikazioa, erakundearentzako edo erakundearen izenean lanean hasten den langile orori zuzendutako harrera-planaren bitartez; langileek Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren helburuak praktikara eramaten saiatu behar dira, bakoitza arlo horri dagokionez esleitzen zaizkion eginkizunetan eta bere lan profesionalaren ohiko bere eginkizunetan, ingurumen-kontrolarekin zerikusia duten alderdiak aurkezten zaizkionean.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemari buruzko irakaskuntza-programa bat ezartzea, pertsona bakoitzak ingurumenaren arloan jardun beharreko alderdiak ezagutzeko.

C.

Ekimen nabarmenak

Museoak arlo honetan ezarritako neurrien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Energia optimizatzea eta energia elektriko eta gas kontsumoak murriztea
- Energia-kontsumoa murrizteko tenperatura-estandar malguak definitzea
- Hondakinak gaika biltzea eta birziklatzea
- Museoko altzariak berrerabiltzea
- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko berariazko biltegi bat egokitzea
- Inguruan sor daitekeen soinu-inpaktua murriztea
- Urtero kanpoko zein barruko ingurumen-auditoretzak egitea
- Langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak eta sentsibilizaziorako komunikazioak



LED TEKNOLOGIA JARTZEA

Azkeneko urteotan abian jarri diren proiektuen artean, nabarmentzekoa da LED teknologia jarri dela Museoaren argiztapen arkitektonikoan, eta hori oso lagungarria izan da kontsumo elektrikoa murrizteko.

2.6

GIZA LANTALDEAREKIKO KONPROMISOA

Museoaren arrakastaren zati garrantzitsu bat erakundea osatzen duten arlo ezberdinetan beren lan profesionala egiten duten pertsonen ahaleginari zor zaio.

Horregatik, Museoa bere giza taldearen lan-baldintzak hobetzeko konpromiso irmoa erakusten du, giza baliabideak kudeatzeko politiketan aurrera eginez, Legez ezarritako eta gaur egun indarrean dagoen zazpigarren Hitzarmen Kolektiboan ezarritako errekerimendu eta sistemez harago.

Museoak bere langileekin hartutako konpromiso horren isla da gizarte erantzukizun korporatiboaren balioak sustatuko dituzten kudeaketa-sistemak ezarri, antolatu eta instituzionalizatu izana, eta erakunde eredugarri, erreferente eta bere langileekiko harreman-ereduan traktore gisa kokatzen dute Museoa.

Museoak, gainera, ondorengo Helburu Estrategikoak jasotzen dituen Giza Baliabideen Gida Plan bat du:

GIZA BALIABIDEEN GIDA PLANA

1. HELBURUA ANTOLAKETA

Guggenheim Bilbao Museoaren jardueratik eratorritako malgutasun, enplegarritasun, balio-aniztasun eta eraginkortasun beharrei erantzungo dien antolamendu-eredua ziurtatzea eta garatzea.

2. HELBURUA PERTSONEN KUDEAKETA INTEGRALA

Bere Plan Estrategikoarekin bat datorren eta Museoaren berariazko beharretara egokitutako Pertsonak Kudeatzeko Eredu Integral bat ziurtatzea.

3. HELBURUA KOMUNIKAZIOA

Barne-komunikazioa sustatzea eta bultzatzea GBMren tresna estrategiko gisa, eta Museoaren beharrei erantzuteko egokiak diren komunikazio-kanalak eta -tresnak definitzea eta praktikan jartzea.

4. HELBURUA LIDERGO-EREDUA ETA ZUZENDARITZA-ESTILOA

Guggenheim Bilbao Museoaren Estrategiarekin eta Balioekin bat datozen eta bere helburu estrategikoak betetzen lagunduko duten lidergo-eredu propioa eta zuzendaritza-estiloa ziurtatzea.

Guggenheim Bilbao Museoak bere giza taldearekiko duen konpromisoa erakusten duten ekimen eta jarduketa nagusien artean, ondorengo hauek nabarmentzen dira:

A. Pertsonen garapena

EKIMEN NAGUSIAK

- Prestakuntza jarraituaren eta pertsonalizatuaren aldeko apustua
- Balio-aniztasuna bultzatzen duten tresnak garatzea
- Euskararen erabilerarekiko konpromisoa

Guggenheim Bilbao Museoak urteetan zehar eutsi dio pertsonen garapenaren aldeko etengabeko apustuari, bai langileei beren lanpostua ahalik eta ondoen betetzeko **prestakuntza jarraituaren** bitartez, bai langileei ezagupen berriak emanez, etorkizuneko promozioetarako gaitzeko, beren profil pertsonalarekin eta profesionalarekin bat datorren moduan gara daitezten.

Ilido horretan, prestakuntza-ekintzak **banan-banan** identifikatzen dira, karrera profesional bakoitzaren garapena kontuan hartuta.

Halaber, Museoko lantaldea osatzen duten pertsonen hazkunde profesionala eta gogobetetasuna sustatze aldera, aurrerapenak egin dira pertsonen **balio-aniztasuna sustatzen duten tresnen** garapenean.

Bestalde, **euskararen erabilerarekiko konpromiso** garrantzitsua hartu du Museoak. EAEn euskararen eta gazteleraren erabileraren araudiari buruz 10/1982 Legean xedatutakoaz gain, 1998. urtean, Zuzendaritzak proposatuta, euskararen erabileraren sustapena txertatu zen, Museoaren Helburu Estrategiko gisa. Gainera, Euskara Batzordea eratu zen, plantillako langilez osatuta dagoena, eta Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana egin zuen. Harrezkero, bisitariari zerbitzu osoa euskaraz bermatzeko helburua lortu da hein handi batean, eta datozen urteetan aurre egin beharreko hobetzeko erronkak identifikatu dira.



BIKAIN EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA

Guggenheim Bilbao Museoak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren zilarrezko kategoria eskuratu du; ziurtagiri horrek erakunde batek euskararen erabilerari, presentziari eta kudeaketari dagokionez duen maila egiaztatzen du.

B. Kontziliazioa, Familiarekiko Arduratsua den Enpresa (FAE) eta Pertsonen aukera-berdintasuna haien aniztasunean

EKIMEN NAGUSIAK

- Conciliarte Plana, kontziliazioa sustatzera eta giza taldean ongizate handiagoa lortzera bideratutako plana
- Kontziliazioaren ziurtagiria, efr 1000-2 arauarekin bat datorrena
- Optima Taldea
- ARHOE ziurtagiria, Espainiako Ordelegiak Arrazionalizatzeko Batzorde Nazionalak sustatutakoa
- Berdintasun Plana
- Emakunde: Emakume eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Erakunde Laguntzaile saria
- Bai Sarea eta DenBBora Sarean parte hartzen du: lan-merkatuko generoagatiko arrakalak murriztea
- Enpresako berdintasunaren DIE bereizgarria, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emandakoa

Kontziliazioa beti izan da lehentasunezko helburua Guggenheim Bilbao Museoaren pertsonen kudeaketaren alorrean; Museoa ireki zenetik, beti aplikatu du *Ehun pertsona, ehun salbuespen* araua, eta kultura hori sustatzeko langileak sentsibilizatzear arduratu da.

Hain zuzen ere, giza baliabideen kudeaketa-politika nagusietako baten helburua da laneko produktibitatea eta langileen gogobetetasun pertsonala harmonizatzea. Pertsonen bizitza pertsonala eta profesionala erraztea funtsezko atala da Museoaren giza baliabideen kudeaketan; horrela, pertsonak kontziliazioaren bitartez kudeatzearekin zerikusia duten ikuspuntuak, politikak eta jardunbideak aztertu, antolatu eta formalizatu ditu Museoak, eta

etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta benetako emaitzak izango dituen plan bat jarri du abian.

Horrela, 2009ko uztailean, **efr 1000-2 arauarekin bat datorren kontziliazioaren ziurtagiria** (fami­liarekiko arduratsua den enpresa) eman zion Masfamilia Fundazioak; ziurtagiri horrek enpresak arlo horrekiko duen konpromisoa, metodologia eta kudeaketa-sistema saritzen ditu. Guggenheim Bilbao Museoa izan zen ziurtagiri hori lortzen lehendabiziko euskal kultura-erakundea, eta Estatuko bigarrena. Beranduago, Museoak berritu egin du ziurtagiria, eta nabarmen gainditu du 2009ko emaitza, agerian utziz alor horretan etengabe hobetzen jarraitu nahi duela eta bikaintasuna bilatzen.



CONCILIARTE PLANA

Legeaz eta Hitzarmen Kolektiboak diotenaz gain, Guggenheim Bilbao Museoak bizitza pertsonala eta familiarra kontziliatzeko politika bat du, denboran zehar gauzatuz joan dena eta Conciliarte Planera eraman dena. Plan hori malgutasun handiagoko lan-ingurune bat sustatzea nahi duen enpresa-politika baten barruan sartzen da, langileei ongizate-maila handiagoa emateko helburuz, Museoak bere langileekiko duen konpromisoaren ondorioz.

Aldi berean, kontziliazioaren eta berdintasunaren inguruan dituen ardurak adierazten ditu eta, aldizka, bere helburuak aztertzen ditu, **Optima Taldetik** ahalik eta ikuspegi zabalena hartzeko (generoaren barruan kontziliazioa barne hartuko duena, Museoaren jarduera integratzeko aukera metodologiko gisa); talde hori 1999tik dago abian, eta lanbide, familia, genero eta egoera zibil ezberdinak ordezkatzan dituzten erakundeko pertsonen osatzen dute. Esparru berri horretan, eta Zuzendaritzaren berariazko babesarekin, Museoak hainbat diagnostiko egin du generoaren ikuspegitik; diagnostiko horiek erakusten dute ez dagoela joera ezberdinik pertsonen kudeaketan, eta prozesu eta politika zuzenak, bidezkoak eta solidarioak sortzen dira. Azterketa horiek balio izan dute, gainera, helburu berriak eta berdintasunaren eta kontziliazioaren inguruan aurrera egiteko eta hobetzeko aukerak antzemateko.

Hain zuzen ere, haurren hazkuntzan gizonezkoen erantzunkidetasuna sustatu du Museoak, gizonezko langileek adingabeak zaintzeko lanaldia murrizteko egindako eskabideak onartuta; oraindik ere era horretako eskabide gutxi jasotzen den arren, oso esanguratsuak dira kualitatiboki, agerian uzten baitute Museoko langileen artean familiaren zainketaren inguruan dagoen erantzunkidetasunarekiko kontzientziazio eta konpromiso maila.

Halaber, **ordutegi-malgutasuna** Museoak bere langileekiko duen konpromiso nagusienetako bat da gaur egun, premisa nagusitzat pertsona bakoitzaren berariazko inguruabarretara egokitzea duen filosofia bat sustatuz, betiere Museoaren helburuak lortuko direla bermatuta.

Konpromiso horrekin jarraituz, Museoan aurrera egin du berdintasunaren egoeraren diagnostikoan, eta dagokion **Berdintasun Plana** egin du, alor horretan duen erantzukizuna agerian utzi eta indartzeko helburuz. Museoa ireki zenetik egon da presente aukera-berdintasuna, bere filosofian zein bere kulturaren.

Museoak erakutsi du bere politikak erakundearen ibilbidean zehar sendotu den sentsibiltate baten ondorio direla eta, pertsonen aniztasunarekiko duen errespetuarekin bat etorriz, gaur egun bere langileen zein bisitarien erronka eta behar berriak asetzen ahalegintzen jarraitzen duela.

Museoak badaki garrantzitsua dela bere ingurunean era horretako politiken bultzatzaile gisa posizionatzea; horregatik, gizarte-berrikuntzan laguntzeko, jardunaldiaren, mintegietan eta topaketetan parte hartzen du eta era guztietako enpresa eta erakundeekin batzarrak egiten ditu, alor horretan duen esperientzia partekatzeko. Halaber, hornitzaileek berdintasun-politikak aplikatzea haiek hautaketan modu positiboan baloratzen den irizpidea da.



ARHOE ZIURTAGIRIA

Museoak ARHOE bereizgarria eskuratu du, Espainiako Ordutegiak Arrazionalizatzeko Batzorde Nazionalak kontziliazioarekin konprometitutako enpresa eta erakundeei ematen dien ziurtagiri profesionala.

Horrez gain, beste tresna batzuk ere baditu Museoak alor honetan; ondorengo hauek nabarmen ditzakegu, besteak beste:

- “Komunikazioko jardunbide egokien eskuliburua”
- “Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko politika”

- “Guggenheim Bilbao Museoan jazarpen moralaren, sexualaren eta sexuagatikoaren aurka borrokatzeko protokoloa”
- “Museoko Jokabide-arauak eta barne-prozedurak”



EMAKUNDEREN SARIA

Museoak Emakundek emandako Emakume eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Erakunde Laguntzaile izendapena du 1998az geroztik.



BAI SAREA

BAI SAREAn parte hartzen du Museoak; Emakume eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Erakunde Laguntzaile izendapena duten 60 erakundek osatutako sarea da, eta helburua da lankidetzaz-espazio bat sortzea, erakunde ezberdinen berdintasun planek lan-merkatuko genero arteko arrailen murrizpenean duten inpaktua biderkatzeko xedearekin.



DENBBORA SAREA

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako espazioa da, gizarte- eta lan-harremanen kultura berria diseinatzeko eta bultzatzeko aukera emango duena, kontziliazioari, erantzunkidetasunari eta genero-berdintasunari dagokionez. Hobekuntzak sustatuko ditu espazio publikoaren irisgarritasunean, mugikortasunean eta garapen ekonomikoan; horretarako, denbora soziala aprobetxatzeko estrategia berriak aktibatuko dira, hiriari ekonomikoki haztea ahalbidetuko diotenak eta, aldi berean, hurbilekotasuna indartuko da.



DIE BEREIZGARRIA

Museoak DIE Bereizgarria du, lan-baldintzetan, antolamendu-ereduetan eta beste alor batzuetan tratu- eta aukera-berdintasuneko politikak aplikatzeagatik nabarmentzen diren enpresa konprometituak saritzen dituen bikaintasun-marka.

C.

Laneko Arriskuen Prebentzioa

EKIMEN NAGUSIAK

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistema Integratua
- Bizitza-ohitura osasungarriak sustatzeko Gosasun Sareko kide da
- Osasun programa garatu du, eta Innobasque-ek ematen duen Gosasun zigilua du

Guggenheim Bilbao Museoaren lehentasunezko helburuen artean, bere giza taldearen segurtasuna eta osasuna zaintzea dago.

Horregatik, helburu horri begira aurrerapenak egiten jarraitzen du, **Laneko Arriskuen Prebentziorako Kudeaketa Sistema Integratuan** jasotako metodologiaren bitartez; metodologia horrek laneko ezbeharrak prebenitzea eta murriztea, arrisku-egoerak eta horien jatorria detektatzea eta lan-ingurune gero eta seguruagoa lortzeko beharrezkoak eta balizkoak diren ekintza zuzentzaileak ezartzea ahalbidetzen du. Sistema horri esker, Museoak aurrerapen nabarmena egin du laneko segurtasunaren alorreko kudeaketan; bere langileen osasuna garapen jasangarri baterako funtsezko lehiakortasun-faktoretzat jotzen du, eta erakundeak badaki lan-ingurune osasungarri batek berebiziko garrantzia duela erakundearen produktibitatea, lehiakortasuna eta jasangarritasuna lortzeko.

Horrez gain, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak bultzatzen duen **Gosasun Sarean** parte hartzen du Museoak, bizitza-ohitura osasungarriak izatea sustatuko duen mugimendu sozio-ekonomiko bilakatzeko helburuz, funtsezko hiru ardatzen inguruan: elikadura, jarduera fisikoa eta osasun emozionala.

Hain zuzen ere, **Osasun Programa** garatu du Museoak, bere Plan Estrategikoan txertatuta dagoena, eta langileen eta erakundearen osasuna hobetzen laguntzen duten programen diseinu sistematikoan oinarritzen dena. Borondatezko ekintza horiek lan-jatorriko arriskurik gabeko ingurune seguruak sortzetik harago doaz; aukera osasungarriak ahalbidetzen eta bultzatzen dituzten jokabideak sustatzen dituzte, eta erakundearen eta langileen beharrak aseko dituen osasunaren kultura bat sortzea dute helburu.

Programa horrekin, bere langileen osasunaren zainketan enpresa erreferente bihurtu da Museoa, prebentzioranzko kultura-aldaketa bultzatuz, bere giza taldearen lan-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuz, eta langileen osasuna eta segurtasuna orokorrean sustatzen duen erakundetzat jotzen da.

IMQ Prevencion erakundearen lankidetzarekin egin du Programa hori Museoak, eta **GOSASUN zigilua** eman dio Innobasque agentziak, ohitura osasungarriak sustatzeko egindako lana saritzeko.



GUGGENHEIM BILBAO